euskal-oŕia

Uztailla'ren 23'an

Etxarri - Aranaz'a

Donostia'ko Eusko Gaztedia'k eratutako "Euskal Batzaŕ"etan biltzen geranok ilaren 23'an Etxaŕi-Aranaz, Sakana aldeko eŕi politera juatea erabaki degu.

Biratxo onekin amaituko genituke 1932-1933 aroko batzar atsegiñak, bein udara juandakoan beŕiro ta bizitasun berezia ekiteko.

Juan gindezken ala ez erabakitzeko, zenbat lagun bilduko geran naitanaez jakin bear, ordea. Ta juateko asmotan zeratenoi, aren dagizutegu, igandérako zuen izenabizenak Eusko Etxea'n emateko. Kontseŕjeak artuko dizkizute.

Juan-etoŕi ta bazkaria, amabi bat laurleko kostako zaizkigu. Etzaio noski iñori garestiegi irudituko.

Abertzaleak, ez gaitzazue lotsagaŕi utzi "Euskal Batzaŕ"ekoak, zeon burua lotsagaŕigo utziko zenuteke ta.

IV'gn Euzko - Olerti - Eguna
Urretxua'n

Din... dan... din... dan

¿Zer dan? Jai aundiren bat uŕian.

Aspaldixotik ari zaigu jo ta jo Euskaltzaleak'en eskil aundia. Zer esanik ez dago bere ziyua badula. Etzan Euskaltzaleak bazkuna egonerako jayo, ekintzarako baizik. Eta bere elburura beti adi, soiñ da gogo eman zituan ekintzari, gaur emen, biar an, etengabeko lan oren erakuzki bikañak utziaz baziaretan. Bateko Euskal-Egunak, besteko Eusko-Olerti Egunak eta abar eŕez aztuko ez diran amaikatxo jai eder eskeiñi ere bai noski.

Jai aundi ta eder oyetako baten erakuntza darabil oraiñ eskuartean. IV'gn. Eusko-Olerti-Eguna. Ipaŕagiŕe uŕetxutar olerkari ospatsua izantzan aren gorasaŕetzat il onen 16'an Uŕetxua'n ospatuko dan IV'gn. Eusko-Olerti Eguna. Eta jai au iragartzen, jai onetarako euskaltzale orok deitzen dardu jo ta jo Euskaltzaleak'en eskil-aundiak, euskaltzale sendi osoa Uŕetxua'runtz begira jaŕiaz. Ez da oraingoxe asmoa jai onena, ustekabean sorturiko eragozpenak atzeratutako jaya baita. Bañan atzerapena goiti beti aunditasun eta edertasunean ezer galduko duan itxurarik ez dago.

Euskaltzaleak'en zortzetik onara eskeroko lanak eta alegiñak ez dira zorionean antzu gelditu. Izan dute euren arnaria. Bere inguruban euskaltasuna, eusko izatia sendotu eta zabalduta ikusten da. Euskaltzaleak gero eta ugariago. Beraz bere jayak lendabizitik ezagaŕi izaten zituzten aunditasun eta edertasunean geyagotuta gerora. Ezin zitekean bada sasoi obean etoŕi Ipaŕagiŕe'ren oroimen goraigaŕi jaya.

Beragaitik esan leike geyegikerian erortzeko bilduŕik gabe ez dala nola naikoa izango, Euskal Eŕia, beratzaz ezagupide osorik etzuan aren, ainbeste maitatzen jakin zuanak bere kutuna zan eŕiyak eskeñita jasoko duan esker onezko opalben xamuŕa.

Oso auŕeratuak duaz erakuntza lanak. Gertakizunak azkenengo ikutuetan dira. Egun oretan Uŕetxua edergalurik apañenakin gertatuko da bere seme entzutetsuari eskeñitako eguna bezela nabaitzenduala atsegiñik aundienetako bat bere izena baztar guzietara zabald uduan semeari dagokion lako omenaldi au ospatzen. Eta egun oren oroimena igaroko da gerora Ipaŕagiŕe'narekin bat eginda.

Jaŕaituko degu oraindik jai onetzaz zedozer esaten. Bitartian gertatu gaitezen euskaltzale orok aspalditxotik belaŕitaratutzen zaigun eskilleyari erantzunaz ilan 16'an Ipaŕagiŕe'ren jayoteŕira biltzeko.

ARIPE

Albiztur

AURAK ERE POZTUTZEN DIRA SARIAKIN. — Kristau-ikasbidea ikastera gure Elizara biltzen diran eta "Mutumiidadean" dauden nexka-mutikoen artean saritan banatzeko, gure Gipuzkoa'ko Auŕezki-Kutxak eŕi ontara aurten bidali dituan 150 laurleko, zozketa bidez eta amairu saritan, il onen 2'ko igandez banatu zituan gure Eŕetore jaunak.

Sarituak, ara jaŕaiki:

Idoyaga'ko Etxeiza'tar Ines'ek, 25 laurleko.

Toŕe'ko Baztaŕika'tar Juan Maria'k, 20.

Aitzalde'ko Eŕezola'tar Bitori'k, 20.

Uŕutikoetxe'ko Arue'tar Maria Rosario'k, 15.

Pagolane'ko Ugartemendia'tar Bitori'k, 15.

Gomaztegi'ko Muñoa'tar Maria'k, amar laurleko.

Iruayen'go Garmendia'tar Maria Jesus'ek, 10.

Erdikoetxeta'ko Odriozola'tar Migel'ek, 10.

Mintxeneko Muñoa'tar Maria Rosario'k, 5.

Gomaztegi'ko Muñoa'tar Elbira'k, 5.

Atxineta'ko Zelaya'tar Inazio'k, 5.

Amaroka-azpiko Landa'tar Prantzisko'k, 5.

Ospital'ko Ayerbe'tar Migel'ek, 5.

Guztiak batera, 150 laurleko.

Zorionak sariak pos-pozik jaso dituzutenoi.

Nexka-mutilak jaŕai
ikasten Dotriña,
kristau onak izaten,
egin alegiña.
Gezuŕik esan gabe
gordezu mingaña,
maite dezagun—egizuk Ama Birjiña.

¿NORTZUK OTE ZIRAN? — Auŕeko asteko gau batez eŕi ontako bi Elizetan, au da, Eliz nagusi eta San Gregorio'ko Elizatxoan sartu nai izan zutenak... ¿nortzuk ote ziran?

Ateak iriki ezin ... ipan zituztelako Eliza oyetan sartzerik izan etzuten ayek, etziran lapurrak noski. Parisetik etorriak. Gertuagokoak izango ziran. ¡Ba!

Elizatikan ostu
nai duten lapuŕak,
zalantza gabe dira
gaizto ta maltzuŕak.
¿Eŕian ote daude
oŕen gizatxaŕak?...
¡Jaunak ondu ditzala
donatzukor okeŕak!

LUISTAR

Zarautz

SUKARIETA'RA. — Aspaldiko asmoa auxe, baña oraintxe garaiz beteko dana. Zarautztar abertzaleok eziñ etzi, geure irakasle ilezkoŕaren ilobi auŕean otoi egin gabe.

Beragatik, datoŕen ilean, au da: Dagonilaren 6'an, emengo aberkide mordo bat aruntz joango da, Euzkadi'ren ziñopa edo "martirian" atseden toki ixilean belaunikatzera.

Ona emen ibilbidea: Zarautz, Deba, Lekeitio, Gernika, Durango, Elbar, Azpeiti ta Zarautz.

Eusko Batzokian dagon ingi edo "papeltxoan" izen emateak polita ikusten da baña besterik iñor ibiltaldi onetzaz zaletuko balitz, zortzi egun auŕez eman beza aditzera, ta geure artean izango da. Beraz oraiñ ibili.

ANTZERKIA. — Gaur, larunbata, afatseko zortziterditan ta Emakume Abertzalien aretoan, "Aitona ta Biloba" len aiñ gogozko izan zan antzerkia beŕituko da. Ondoren, Alberdi'tar Peli antzezlari trebeak, bakarizketa paŕegaŕi bat esango du.

¡Abertzaleak! ¡Afatseko zortziterditan Emakume aretora guziok!

¡URTETA'RA! ¡URTETA'RA! — ¿Ecec...? ¿Ez dezula ezer jakiñ? ¡Gezuŕa dirudi gizona! ¡Sekulako jayak ditugu-ta!

Ene abertzale, igandez Urteta'ra igoko zera noski. Polita izango litzake bestela beintzat...! ¿Jayen beŕia? Begira, begira ondo:

Goizean 10'tan jaupa edo meza bertako baseliz edo ermitatxoan.

11'tan auŕeskua.

12'tan, bazkaria.

3'terditan, ezpatadantzari ta gorulari en jayoa.

4'tan, Itzaldia. Ugartetxea'tar Donata, Donostiar izlari entzutetsuak itzegiñik.

"Basaŕi" txiro oni ere jaŕi diote bere lanbidea, ez dago esan beaŕik zer izango dan. Mendigoizaleak ere anixe dute beren jai aldia. Ayerdi'tar Mikel gaztoa ere bertan sarituko da. Ori guzia ikusi nai duanak, goruntz igo bear. ¡Basaŕitar ta kaletaŕak! ¡Igandean Urteta'ra!

ERIOTZA.—Bi ebakuntz edo "operazio" egin ondoren, Donosti'n eman du azken arnasa, Lertxundi'tar Inazio, eŕitar gizon ezagunak. G. B.

Samintasun laŕi ontan laguntzen diegu bere sendikoai. Irakurle, aitagure bat bere gogo aldez.

UDARA. — Asi da erbeste jendea. Itxaropen aundia dago aurtengo onetan. Olakoxe denborak baliru... Ongi etoŕi ba.

BASAŔI

Mendaro

E. A. B.'REN ZABALKUNDEA

Badakizute datoŕen igandian emengo E. A. B.'ren zabalkundea dala ta egun oretarako. ¡Eup...!ada maitakor bat egiten zaizute, guziok onera etortzeko.

Gure emakume jatorak gau ta egun lan egin ondoren sekulako egitaraua jaŕi digute.

Ez daukat emen jaŕi biaŕiz, guziok dakizutelako, baña itz lariak jaŕiko ditut:

Urzelai (emakumia) euskeraz.
Agiŕe (emakumia) erderaz.
Biteri (gizoneskua) euskeraz.
Leizaola (aldun edo diputadua), erderaz ta euskeraz.

Zein baño zeiñ bikañaguak baña batez ere Leizaola jaunak zaletasun bizia zabaldu du Gipuzkoa ta Bizkaia guztian.

Uri guztietik artzen ditugu idazti ta urutizkiñak igandiari itxaroten dagozelazela esanaz emen biltzeko, ta uste degu oietatik asko goizetik etoŕiko dirala, Jaupa nagusirako. Mendigoizaliak ere asko emen datoz.

¿Zer ikusiko ote degu egun oretan? Jaupa nagusi edeŕa, Ikuŕin edeŕak ugari, itzaldi jatorak, notintza izugaŕiak, eta gañerakuak.

Itz batian esaten dan bezela etxia leiotik aterako degu egun oretan.

Eta oraintxe gogoratu zait, "Abeŕi" Elgoibar'koa ere goizetik emen datoz.

Agu rba. "Abeŕi" ta igande arte ¿Andra gai bila al ator?

Artobero

Gabiria

JUAN ETOŔIAK. — Jon Donearen jalak Segura'n igarota biurtu da bere etxera, Erauskin'dar Leona anderea.

—Mutiloa'n Kepa Donearen eguna egin ondoren, Izagiŕe'tar Miren ta Isidore aizpak.

—Atseden aldi luze bat gure artean artu ondoren, udara Donostia aldean botatzeko asmoan agur egin digu Azarola'tar Joseba pianista trebeak. Agur eta zure lan oretan dezun trebetasunarekin txalo ugariak irabaztea opa dizut.

EZKONTZA. — Aste baruan bizimodu beŕia artuko du Azarola'tar Tomas'ek, Legazpi'ko neska batekin. Zorionak eta urte askoan alkaŕekin izatea opa dizmet.

LEGAZPI'RA. — Iganderako Legazpi eŕi politeko abertzaleak deika dauzkagu. Jai aberkoi egokiak eratu dituzte, bertako E. A. B. ta Mendigoizaleen ikuŕin onespena ospatu nairik.

Zu, Gabiritar abertzalea, badakizu nolako leialtasunarekin etoŕi ziran orain bi urte Legazpi'ko abertzaleak. Ta igandean orduko zoŕa ordaindurik, guziok antxe bear genuke. Ia ba Legazpi'n ikusten zaituztedan gabiritar abertzaleak.

AIZELEKU

Errera-Altza

ALTZA'KO PESTAK. — Altza eŕikoak ospatu dituzte bere patroi San Martzial eu jayak, eta agur egin diye datoŕen urte arte. Bañan ez dago orregatik atsekabeturik, bada uri ontan pestarik ez da beñere palta, bada oraindik badauzkagu Eŕera, Binagrea eta Intxaurondo'kuak, beste eŕikuetzaz gañera, alai nai añe dantz egiteko gaztiak asperiu arte.

TROMFF ERRERA'KO BATZOKIYAN. — Ostegun arratsian, izan genduu emen Tromff jauna, eta bere egin taz ikusgaŕiak asko gustatu zitzaizkien berak ikusten izan ziranari, beragatik izank oso txalotua.

Oso abertzale agertu zitzaigun, eta ziyonez au zun oraingoz azkenekoa Gipuzkoa'n, bada Bizkai'ra omen dijoa.

BOLARI TXAPELKETA. — Lengo urtietan bezela, emengo "Herrera Sport"ek eratuta, aurten ere ari zan txapelketa edo kanpeonatu au jokatzen "Txinguŕi"ko bolatokiyan, bañan nola azkeneko ugoldean kaltiak onera ere iritxi ziran, Atzeratu biara izan zun, eta igandian egingo dituzte azkeneko sayoak, oraindik irabazte izateko itxaropenakin gelditzen diran bolariyak.

Beste urtietan izan diran txapeldunak abek dira:

Binakua edo parejan:

1930: Salsamendi ta Ansa, ulitataŕak, 201 brilakin.

1931: Beristain ta Ansa, ulitataŕak; 238 brilakin.

1932: Ugarteburu anayak, ezkiotaŕak, 227 brilakin.

Banakuan:

1930: Ansa'tar Felix, ulitataŕa.

1931: Sodupe'tar Jokin, añorgataŕa.

1932: Ugarteburu'tar Martxel, ezkiotaŕa.

¿1933'gko zeintzuk eta zenbatekin ote dituzu?

Euskal jolas garbi oyek, txapelketa ontan ikusi nai dutenak azaldu bestetik ez du "Txinguŕi"ra, bitartian sagardo ona erateko gaya izango du.

UGALDEAGATIK KALTETUAREN ALDE. — Lengo batian esan nuen bezela, Eŕera'ko Eusko Etxea'n dago irikiya arpide bat ontarako. Asko dira bertara azaldu diranak zerbait emanaz, eta tartian ere bada, bere izena azaltzia nai ez dun bat, 100 laurleko eman dituna.

Oraindik azaldu ez diran gutxiyak, bada geyenak eman dute, sayatu aldunak aldun bezela gure anai urkoaren alde, batez ere orain atsekabian arkitzen diranian.

Il onen 16'rako, Altza'ko Udal edo Ayuntamentua emengo Soziedade danen laguntzakin eratzen ari da jai aundi batzuk, pelotari, koŕikalari, ezpatadantzari ta abar; baita ere izango da eresbatza edo musika'ko banda. Bere garayan, azalduko da jai aben egitarau edo programa.

Jalaldi abek danak izango dira bere seneuŕiakin eta dirua azkeneko ugoldean kaltetuaren alde.

Itani

Motriko

Abertzaleak, datoŕen igandian goizeko 7 1-2 tan izango da Augustindaŕen Lekaimetxean jaupa bat, Aŕieta'tar Andoni (G. B.) Eusko Batzokiko bazkide izandu zanaren gogo aldez.

Emakume ta gisonezko, zar eta gazte, guziok joan jaupa ortara.

Lendakaria

IRU GUDARI

Azkenian ere Donosti'ra etoŕi zaizkigu Bilbao'ko antzerki zaleak. Eusko Gaztedi talde bikaña, gizon bulartsuak, abertzale senduak, gaztedi kementsua. ¡Oŕelako sua nabailuko bagenu beti! ¡Adiskide onak etxera etortzen zaizkigunoko biotz maitasuna nabailuko bagenu beti-beti! ¡A zer kia aterako genioken abertzaletasunari!

Bilbao'ko gizon eta emakume politak, Abeŕiaren goraipenak egiten ikusiñan, eta nekeptan bizi izateak ajolik ez diotela euskotaren batazun jatoŕia baztar guztitan erein al balliteke beintzat, irakiten jartzen da gaztiaren odola, ta lenotik oŕelako kemenik izan ez badu ere, laister asko Euzkadi'ren azkatasun eske dago. Ta gure adiskideak begien auŕetik alde egiten dutenian, gaztedi adoretsuari ta emakume argi séntdoai agur maitekoŕa egin ondoren ¿norako gelditzen da gure abeŕi maite mintzoa? ¿Eusko gudari gaztiak beste abeŕi bateko gizonak mindu, espetxeratu ta iltzeraño ekaŕi dituztela ikusi arteko abertzaletasun miñik izango ote dugu ba? ¿Neska gazte liraŕiak gure abenda ezagutu nai ez duten agintari ta gudalburuak jo, ebain gaixto egin eta luŕian amilduta ikusi arteko bizia ote du ba gure abertzaletasunak?

Emakume liraŕak luŕian, esku me legunak luŕeko autsetan zikindu ta loiturik, axal biguna sardazka zoŕotzaz ebakita... ala ere, orduan emakume alen ezur biguñak kriskatzia gureitzat abeŕi maitasuna ote da edo emakume atsegiñaren maite-ixila?

Nik ezin eraman dut emakume garbia luŕian ebaindua, eta pozik jasoko nuan luŕetik eta miñik artu duan galdetu, "Aizteak" antzerki buruz ari nazute. Oŕelako neke eta erasoaldiak emakume euskotaŕari ematen dizkate antzerki ortako gertaldi samingaŕian.

Eta nik ez dakit aldi artan nere baŕenian sortzen zen ezin-egona, gazteraen edertasunak edo egitazko abeŕi gogo biziak sortzen zuan berotasuna ote zen; ez nekien nere begien edergaŕiari edo nere Abeŕia iraindua ikusten nuelako jartzen ote nitzan era artan.

¿Zer, ez al dakigu izlariak ere askotan eder naiagatik itz egiten dutela? Izlariak ez badu txalorik jasotzen, iruitzen zaio ez ote den ondo mintzatu, eta berak on beaŕez esandakua eŕiaren gogokua izan ez delako, uŕengorako beste asmo batzuek artu el ditu. Ez, bere ustez ondo mintzatu baldin bada ta iritzi gaŕetan bide zuzenian dabilela iruitzen bazaio ez dauka ezertan ibili beaŕik, ezta lengo esanari beste joskera bat bilatzen ere. Egia esan nai badu, min eman, edo atsegin dela edo ez dela, den bezela esan beza gogoak dion guzia.

Izlaria izaki orde, ¿eta izlari askok ez ote du naiago giz-edeŕa, esaten duenari asko-asko begiratu gabe?

Nik ere ba ez dakit emakumiari edo abeŕiari begiratzen nion.

—o—

Biotza sutzen da, bai, "Iru gudari" antzerkian, gudamutilak ilda agertzen diranian. ¿Gudamutil oiek orde, piztu egiten dira beŕiz? ¿Gure abertzaletasuna antzerki irudiz estalia ote dago? Gudari mutilak iltzen diranian gure abertzaletasuna piztu egiten da, ta gudari mutilak pixtian beŕiz gure abertzaletasuna... il.

¡O, beaz irudizkoa ote da gure abertzaletasuna! Ordu arte aberkide asko, abeŕiaren aldeko lan ixil eta neketsuetan ere azaldu ez diranak, "Iru gudari" ikusita gero, eztabaidan ta ortzak erakusten asteko ordua dela esaten zuten. Abeŕiaren gogoa norberaren biotzetan bear bezela sartu ez, eta buŕukan asteko ordua dela.

Oŕelako abertzaliak ez dut uste gure izparingietan euskal oŕirik irakurtzen dutenik ere... ta guda ta suketan beriala asi nai dute. Eta ia beti, lanik gutxina egiten dutenak izaten dira oŕela baztaŕak puŕakatu nalean ibili nai lutekenak.

Abertzalien jai bat dela, eta andregalakin goxoki maitaketan ikusi izan ditut gelenian, abertzalerik eta batzokirik badenik ere gogoratu gabe. Eta "Iru gudari" ikusi dutelakoz beriala ezin buruturik jaŕita. Euskotaŕen odola lenago izango emen zan sutsu ta berua, gaur ez beintzat, —diote.

Lenago ere oŕialdi ontan idatzi izandu dut "Oar bi "izenaz, zenbait abertzalek biotzian duten ezin-egona. Asaŕe aldian irabazi egin dugula esate baterako, ¿eta zer? Asaŕe aldia bukatu ondoren ez al dugu bizi bear, ez al dituzu leu añlan nekiak eta eragozpenak izango? Eta orduan, asaŕe aldiak zirikatzen ez gaituala ¿iraungo al du abertzaletasunak? ¿Nola biziko dira gure batzokiak, zer irakuŕiko dugu ta nola mintzatuko gera geren seme alabekin?

Gure izkuntza maitasunik ez dugularik, asaŕe aldia bukatzian erderaz mintzatuko gera, Jaungoikoaren maitasun berorik ez dugula, beste eŕietan bezela emen ere ikastolak gurutzerik gabe agertuko dira. Anai arteko ezaguera ta zintzotasunik ez dugula, beste langiliak bezela oporketa lotsagabetan ibiliko gera, "Iru gudari" ez da buŕukan ikasteko, abeŕia ezautzeko baizik.

Abertzaletasuna biziko da euskera bizi den artean. Eta euskeraz gutxi egiten da, oso gutxi. Eta zerbait dakitenak ikasi eta jardun gabe, urtietan lan egin dutenak aña jakin nai luteke.

Euskera bizi bada, abertzaletasunak iraungo du.

Polixene'k egin zuan itzauŕeak asko ase niñuan. Donosti'ko antzoki apañean euskeraz mintzatu bai zitzaigun. Onek bai etzuela txaloak jasotze aŕen itzegin. Erderaz mintza el da gelenian. Onek jakin orde gure izkuntza ezkotaŕa dela. Euskera izaki gure izkuntza ta oŕelako emakume gaztearen espaŕetan gure izkuntzak beste bat dirudi.

Au da auŕenengo eginbeara: abeŕi gogua piztu gure biotzetan. Inoiz asaŕe osoan ateratzia baño zalagoa da batzoki baŕenian lagunakin jardunian aritzia, gaztetxoai abestiak erakustia, beste aldian "Orquesta Rode"ren ereslaldi apain, dotore, atsegiñari utzi ta Eusko Abesbatzako lan eta ekiŕetara biltzea.

Españako erkalak edo agintariak ere naiko ontarte ta aberkzatasun agindu zituzten. Biño ez da, beroz-bero ardan gizon batzuek bota ones ezin delan, txaŕez (tiroka) ta bestiak agintzen jartzia. Auŕenengo suaidi ura bukatzian nola osatu gero abeŕiaren maitasunak bultzata lagun urkoari eskeñi zitzaizkion onurak?

Gero ere abeŕiak bizi bear du. Eta abeŕia ezagutu egin bear da, den bezela ta ez aŕokeriz. Ori "militarismoa" izango litzake. Gure abeŕia bestea abeŕi guziak biño obia dela uste izatiak, sutu egiten gaitu, irakindu gaztiaren odola, guzia iskilua egin nai baluteke bezela.

Bai ba, aŕokeriaren ondorenak: gure ospeketariak biño geigo maite dituzte ezaka dantzari panpoxak, eta batzokian egon biño naiago egon akertetxe apañetan, eta gero nai luteke, abeŕiaren eskubidiak indaŕian ekaŕi, emenguak emengo zeniak dirala esan utsarekin.

Au ondo dago, biño auŕena euskotartu.

Garbitu

Euskel-Idazle batzarra

Artezkari jauna: Atsegiñ aundiz ikusi det izpeŕingi ontan "Luzear"ek adierazi digun asmoa, "Txistu"ren antzeko asteoroko bat gure poxpoliñentzat sortzeaz diona.

"Laŕeko" idazle argi ta bizkoŕak ere batzar ortan erabaki bear ziran gaiak baziŕaia zion eta ongi litzake bakoitzak garaiz adieraztea, bear bezela auŕez aztertu, ikusi ta on dan bidean jaŕi ditzagun, eta idazle napar onen ustez komeni diran araso oiek zein diran jakiteko zaletua nago.

Ez bai da egoki batzaŕean zer esan eta erabaki bear degun ezjakinean arkitzea, orduak alpeŕik galtzen.

Lendik asmoen beŕi degula, lanaaren erdia auŕeratu degu ta eŕazago, ziuŕago ta egokiago atera litezke gure eginkizunak. Ea ba, ots ene adiskideak, azaldu zuen asmoak, bear bezela ikasi ditzagun.

Eta... jaso biotzak, eta gora Euskera gure ele maitagaŕia.

GOIKOLA'KO TXORIA

Itziar

Kontzezio eguna, egun zoragaŕia benetan.

Goiz goizetik eguraldi edeŕa argitu zan, ta baztar guziak alaitasunez beterik arkitzen ziran, gu, abertzaleak, batez ere, alde guzietako anai ta aizpak gure artean agurtu bear genitulako. Gogoratze utsarekin baŕen guzia pil pil jartzen zitzaigun. Baziran alare eudi jasa izugaŕiak bota bear zituala esaten zutenak. Baña etzan ala gertatu.

Oso goiz asi ziran abertzale aldrak etortzen: oñez batzuek, besteak bultzis edo beribiletan, eta asko izan ziran Jauna emen artu zutenak. 8'etako jaupau izan genun jaunartzea txit edeŕa izan zan.

Paupa nagusi, dantzaz ta itzaldien beŕi "Burni-bide"k eman zuan bai, ta ez nijuakizute arek esana beŕitzera. Baña itzaldi ondoren egindako idazle batzaŕa beŕiz ere aitatu nai dizutet. Bi asmo artu ziran: "Abeŕi"ren omenaldira guziak jaatekoa bat, eta bestea "andereño" baŕi beste omenaldi bat egitea. Ool onetan beste batek du itza.

Ona bildu giñan mordoxka (norbait astuko balitzait barkatu). Zoŕape, Lau uxo, Zeŕekaldi, Maitxo, Ixaka Murugan, Idrole, Basaŕi, Burnibide, Guruiz bide, Jeltzale, Xenpelar, Atxeŕu, Itziar maite ta abar. Mirentxu'k eta Abeŕi'k idazki bana bialdu zigutan. Mila esker oroipenagatik. Eta beste guziei agurik sutsuena dagiegu beŕiz ere, "laister arte" esanaz. "Abeŕi" ren omenaldirarte esan nai nuan, orduan baita guziok biltzeko eguna.

"Abeŕi" orain ere gaxo edo dagola? Laister pizkortuko al da! "Mirentxu"k ere zerbait baduala? Kerixa janak gaitz eginda nunbait. Sendatu ba lenbaitlen. Zapatilak legortu zirala jakingo dezu ez? Gertu daukat ba, badakizu noizko.

"Luzear" eri ere, mila esker agurragatik ,etortzea añaxe eskertu genizun.

ITZIARTXO

EL PUNTO DE REUNION DE LOS MEJORES GASTRONOMOS ES EL
RESTAURANT BAR
DANA-ONA
SAN MARTIN, 29
Donde se sirven los platos más exquisitos y los más clásicos del País
Los mejores vinos y los licores de las marcas más acreditadas
Refrescos y aperitivos especialidad de la Casa

¡Señora!
Cuando pida achicoria exija marca EL LEON, porque es la mejor.